

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**AZPEITIKO UDALA**

*Azpeitiko Udalaren eta bere erakunde publikoen Diru-laguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoa eguneratzea.*

Udalak, 2020ko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, Udalarentzako eta bere erakunde publikoentzako 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea erabaki zuen (2020-05-28ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

Ondoren, 2020ko maiatzaren 21eko bilkuran, organo horrek berak erabaki zuen Sustapeneko Plan Integrala onartzea, Covid-19aren inpaktua arintzeko neurriekin. Plan horrek Diru-laguntzen Plan Estrategikoa osatzen du (2020/07/8ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA). Era berean, aldaketa zehatzak egin zitzaizkion hasierako Plan Estrategikoari, Auzo-taxi programaren sustapena kontuan hartuta (2020ko abuztuaren 21eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA).

2021eko ekitaldirako onartutako aurrekontuak eta onartutako aldaketak ikusita, Udalbatzak 2021eko otsailaren 2an egindako udalbatzarrean Udalarentzako eta bere erakunde publikoentzako 2020-2022 Diru-laguntzen Plan Estrategikoa eguneratzea erabaki zuen.

Eguneratzeak diru-laguntzen lerro berrietan jartzen du arreta, eta horien alderdiak Planean bertan identifikatzen dira: eskumen-arloak, helburuak eta ondorioak, lorpen-epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, ekintza-plana, jarraipen-araubidea eta emaitzak. Planaren beraren bidez aldatu diren helburuak dituzten diru-laguntzen lerroak ordeztu edo ondorioak gabe uzten dira, eta diru-laguntzen lerro bakoitza egiteko aurreikus daitezkeen kostuak eguneratzen dira.

Diru-laguntzen 2020-2022 Plan Estrategikoaren edukia, behar bezala eguneratuta, Azpeitiko Udalaren webgunean, laguntza-programari dagokion atalean, eta Diru-laguntzen eta Laguntza Publikoen Publizitate Sistema Nazionalen argitaratu da.

Erabaki hau irmoa da administrazio-bidean. Ebazpenaren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, zuzenean aurkaratu ahal izango da Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, egoki irizitako beste edozein errekurtso gorabehera.

Azpeitia, 2021eko otsailaren 25a.—Nagore Alkorta Elorza, (1494)  
alkatea.

**AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA**

*Actualización del Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022 del Ayuntamiento de Azpeitia y sus organismos públicos.*

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 5 de mayo de 2020 acordó aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022 para el Ayuntamiento y sus organismos públicos (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 28/05/2020).

Posteriormente en sesión de 21 de mayo de 2020 este mismo órgano acordó aprobar el Plan Integral de promoción con medidas para paliar el impacto de la Covid-19 que complementa el Plan Estratégico de Subvenciones (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de fecha 8/07/2020). Asimismo, se realizaron modificaciones puntuales al Plan Estratégico inicial teniendo en cuenta el fomento del programa Auzo-taxi (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa 21 de agosto de 2020).

A la vista de los presupuestos aprobados para el ejercicio 2021 y las modificaciones aprobadas el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 2 de febrero de 2021 acordó la actualización del Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022 para el Ayuntamiento y sus organismos públicos.

La actualización se centra en las nuevas líneas de subvenciones cuyos aspectos referidos a las áreas de competencia, objetivos y efectos, plazo de consecución, costes previsibles y fuentes de financiación, así como el plan de acción, régimen de seguimiento y resultados se identifican en el propio Plan. Se sustituyen o dejan sin efecto las líneas de subvenciones cuyos objetivos han sido modificados a través del propio Plan y se actualizan los costes previsibles para la realización de cada línea de subvención.

El contenido íntegro del Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2022, debidamente actualizado, está publicado en la página web del Ayuntamiento de Azpeitia, dentro del apartado correspondiente al programa de ayudas y en el Sistema Nacional de Publicidad de Subvenciones y Ayudas Públicas.

El presente acuerdo es firme en vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al recurso contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Azpeitia, a 25 de febrero de 2021.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (1494)